Elkargoak eskaintzen dituen zerbitzuak mantenduko dira; halaber, Elkargoko **kuotak berdin-berdin mantenduko** dira. Horrenbestez, kuotek **–hamalagarren urtez–** handitu gabe edo txikituta jarraituko dute.

Oraingo honetan, Gobernu Batzordeak **240.905 €-ko defizita** duen aurrekontua aurkeztu du, Batzar Orokorrak onar dezan, **3.670.965 €-ko gastuekin** eta **3.430.060 €-ko sarrerekin**.

Aurreikusitako defizita Elkargoaren Erreserba Funtsarekin konpentsatuko da, aurreko ekitaldietako superabitetatik eratorrita, eta, bereziki, aurreikusita dagoenarekin, 2010eko ekitaldiko likidazioa oraindik egin gabe baitago.

Defizit horren funtsezko arrazoia da gastuak % 8.72 handituko direla aurreko ekitaldiarekiko. Alde hori, funtsean, soldaten eta profesional independenteen partidetan kokatzen da, KPIaren igoera handiaren ondorioz, bai eta aurten elkargoari epaitegi eta auzitegietatik eskatu zaizkion kostu-tasazioei buruzko txostenen kopurua nabarmen handitzearen ondorioz ere, eta hurrengo ekitaldietan ere ildo beretik jarraituko duela aurreikusten da. Hala ere, ez da aurreikusten korrelaziorik izango duenik diru-sarreraren hazkundearekin (% 1,6 baino ez da izango), ia partida guztietan sortutakoak apur bat gutxitzea aurreikusten baita, jarduerak antolatzea eta ustiapenerako diru-laguntza izan ezik, azken hori ofiziozko txanden eta DLJren egiturazko kostuengatik jasotzen baita.

Gastuak esleitzeko zentzorei dagokienez, alde batetik, azterketa-atal, -batzorde eta -taldeei esleitutako kopuruak mantendu egin dira, aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

Ofiziozko txandari dagokionez, aurrekontuan jasotako elkargoaren kudeaketaren egiturazko kostuak handiagoak dira, oraindik ere, horretarako jaso beharreko diru-laguntzagatiko diru-sarrerak baino. Azpimarratzekoa da, halaber, oraindik formatu digitaalaren jarraitzen duen buletinaren edizioak aurrekontuari dagokionez izan duen euspena.



Praktika Juridikoko Eskolari dagokionez, aurrekontuan sartutako gastua handitu bada ere, diru-sarreraren gehikuntzarekin konpentsatzen da. Ekitaldi honetan, ohi bezala, Deustuko Unibertsitatearekin lankidetzan egiten dugun ASUM Abokatutzako Masterraren aurrekontua egin da. Halaber, etengabeko prestakuntzaren aurrekontua egin da; etengabeko prestakuntzari dagokionez, espezialisten sei ikastaro antolatu dira (Kontratazio Publikoa, Konkurtsoa, Familia eta Oinordetzak, Foru Zuzenbidea, Kontratazioa eta Funtzio Publikoa) eta hainbat jardunaldi eta ikastaro, urtean zehar egon daitezkeen beharizanen eta lege-aldaketen arabera.

Diru-sarrerei dagokienez, nabarmentzekoa da, aurten ere, ez dela inolako gehikuntzarik aurreikusten kideen aldizkako kuotetan; halaber, oro har eta PJEtik datozen diru-sarrerak izan ezik, Diru-sarrerak esleitzeko gainerako zentroetan jaitsiera txiki bat aurreikusten da, 2021eko ekitaldiarekin alderatuta.

Argi eta erraz eskaintzeko, baina, aldi berean, irakurlearentzat osorik, aurrekontua prestatzen da Elkargoak ezarrita duen kontabilitate analitikoan oinarrituta, eta zehatz-mehatz deskribatzen dira Elkargoak bere funtsak zein kostu gune edo zentrotara eta kontzeptutara bideratzen dituen, bai eta diru-sarrerak sartzeko bideak ere, partida berberen arabera banakatuta. Horrela, aurrekontua aztertzen duenak azkar dakusa horietako bakoitza eta horrek elkargoaren gastuetan eta diru-sarreretan duen benetako eragina.

Gune edo zentro bakoitzaren xehetasunarekin batera, aurreko urtean aurrekontuan jasotakoa ere jarrita dago; horrela, kontzeptu bakoitza azter daiteke eta izan duen bilakaera ikus daiteke.

Lehenengo bi zutabeek Elkargoko atal edo azterlan talde guztietako gastu- edo sarrera-zentroz edo gune guztien batuketa islatzen dute; lehen zutabeak 2022rako aurrekontuaren proiektua biltzen du, Batzar Orokorak onar dezan, eta bigarrenak 2021erako onartu ziren gastu- eta sarrera-zentroen batura.

Gastu- edo sarrera-zentro guztiak jasotzen dituen aurrekontu-koadroan xehakapen zehatza egiten bada ere, memoria labur honetan beren garrantziagatik nabarmendu nahi diren alderdi batzuk aipatzen dira. Dena dela, Elkargoko diruzainak **abenduaren 22an, asteazkena, 13:00etan** Elkargoaren ekitaldi-aretoan (Uribitarteko Arrapalak 3, Bilbo) egingo den **Batzar Nagusian** emango ditu informazio eta azalpen zehatzak.

Zehatzago esanda, honako partida edo kostu-zentro hauek nabarmendu nahi genituzke, elkargoaren garrantziagatik edo zenbateko ekonomikoagatik nabarmentzen direnak:

**Aurrekontuko partida edo gastu gune batzuk zehatzago aipatu nahi ditugu,** elkargoan duten garrantziagatik edo kopuruaren aldetik duten eraginagatik:



## **Zerbitzu orokorrak:**

Zerbitzu orokorrak izeneko atalean gure Elkargoaren egiturari eta ohiko funtzionamenduari dagozkion gastu eta sarrerak bildu dira, baldin eta jarduera zehatz bati ez badagozkio. Hori dela eta, kopururik handiena duen partida da.

### **GASTUAK:**

Atal honetan Elkargoaren kudeaketa arruntaren eta administrazio zerbitzuen gastuak, eraikinaren mantentzeari eta kontserbazioari dagozkion gastuak, elkargoko bulegoek eta administrazioak sortutakoak, baita Justizia Jauregietan ditugun egoitzetan sortutako gastuak, liburutegiarenak, telefonoak eta egoitzen arteko lotura mantentzeak sortutakoak, Wi-Fi edota web orrialdea mantentzearenak, informatika gastuak, elkargokide berrien zin-egiteak eragindakoak edo elkargoaren fotokopiagailuak eta inprimagailuak egoitza guztietan mantentzeak eragindako gastuak, etab.; baita enplegatuek ordaintzeko eta profesionalak kontratatuzko orduan sortzen diren gastuak, horiek guztiak ez badaude jarduera zehatz bati lotuta; horrenbestez, elkargoko zerbitzuen ohiko funtzionamenduak eragindako gastuak dira.

Gastu- eta sarrera-gune garrantzitsuena da, izan ere, Elkargoaren zerbitzu gehienak hemen jasotzen dira. Beti bezala, atal hau ahalik eta gehien doitzen saiatu gara. Dena den, aurten % **13,05eko** igoera izan du, aurreko urteko aurrekontuarekin alderatuta.

Ondoren, zerbitzu orokorren barruan aipamen berezia merezi duten gastuen azalpen laburra gehitu dugu, gure ustez oso garrantzitsuak dira eta:

#### **- Liburutegia:**

Ohikoa den bezala, Liburutegiari dagokion partidari eutsi zaio, *97.000 €-ko* zenbateko handiarekin, zerbitzu hori eskaintzeak Elkargoarentzat garrantzi handia duelako eta zerbitzu hori kalitatezkoa izan behar delako, elkargokideen eskura sektoreko enpresek argitaratzen dituzten tresna ugari jarriz, paperean zein euskarri informatikoan. Ahalegin hori gure lankideek liburutegiaz egiten duten erabilera handian islatzen da, gure zerbitzu nagusietako bat bihurtzen baitute, eta, beraz, uste dugu baliabideak ez direla gutxitu behar zerbitzu hori eguneratu, hobetu eta mantentze aldera.

Halaber, atal honetan sartuta daude kontratatuta ditugun datu-baseak; tresna horiek eskuragarri ditugu Barakaldon, Getxon, Durangon eta Gernikan, baita Bilboko Barroeta Aldamar eta Buenos Aires kaleetan dauden Justizia Jauregietako bulegoetan. Era berean, zerbitzu hori Balmasedako bulegoan martxan jartzea aurreikusi da; bulego horretan, langile propiorik ez izan arren, Internetarako sarbidea instalatuko da dagoen ordenagailuan, eta datu-base horietarako sarbidea izango du.

**- Enpresek egindako lanak:**

Partida hori aurreko ekitaldian aurrekontuan jasotako kopuru berean mantentzen da (40.000 €), 2020an aurrekontuan sartu ziren 65.000 euroen aldean. Hala ere, murrizketa hori jardueren antolaketagatik diru-sarreraren atalean konpentsatuta dago, eta atal horrek ere kopuru txikiagoa jaso du aurrekontuan.

Duela hiru urtetik hona, gure aurrekontuan sartu behar dugu "Eduardo Escribano" erakusketaren antolatzearen behar dugun diru-kopurua. Lehen BBK erakunde finantzatzailea arduratzen zen katalogoak muntatzen eta editatzen zituzten enpresei ordaintzeaz, eta, orain, erakunde horrek zenbateko bat ematen dio Elkargoari, eta guk kontratatzen ditugu hornitzaile guztiak. Beraz, hori guztia gure urteko aurrekontuan agertu behar da. Ekitaldi honetarako, pandemia-egoera dela eta, ziur aski programatu ahal izango diren erakusketen kopurua murriztu egingo da; horrenbestez, jarduera horrek sortzen dituen gastuak eta diru-sarrerak murriztuko dira.

**- Konponketak eta kontserbazioa:**

Zenbatekoa nabarmen murriztuko da, baina uste dugu nahikoa izango dela; izan ere, urteko lehenengo hilabeteetan Elkargoan eta Elkargoaren egoitzetan ez da ohiko jarduera izango; ondorioz, aurreikuspena txikitu da.

Partida hori zerbitzu orokorren atalean *115.000 €-rekin* hornituta dator, aurreko ekitaldian 110.000 €-rekin hornitu zen bitartean (nahiz eta 2020an aurrekontuan sartu ziren 145.000 €-etatik urrun egon).

Kontu honetan elkargo-egoitzen ohiko funtzionamenduak eragindako gastuak kontabilizatzen dira, hala nola garbiketa, segurtasun-neurriak, alarmak, ohiko konponketak, makineriaren, galdaren, igogailuen eta fotokopiagailuen mantentze-lanak, informatikako konponketak, etab. Zenbatekoa nabarmen murriztuko da, baina uste dugu nahikoa izango dela; izan ere, datorren urtean Elkargoan ohiko jarduerarik egongo ote den ez dakigu. Beraz, murrizketa mantendu da.

**- Profesional Independenteen Zerbitzua:**

Zerbitzu orokorren atalean dagoen *317.000 €-ko* partida da, iazkoa eta aurreko ekitaldietakoa baino askoz handiagoa.



Atal honetan, elkargokideei edo herritarrei zerbitzuak eskaintzeko Elkargoarekin lankidetzan aritzen diren profesionalen kontratazioa jaso da. Horretarako, elkargokide batzuek barruko eginkizunak egiten dituzte, besteak beste, hauen inguruan: informazio-eginbideak eta espedienteak izapidetzea, arbitrajeko minuta-espedienteak, kostuen tasazioak edo erantzukizun zibileko txostenak izapidetzea. Memoria honen hasieran adierazi den bezala, profesionalen ordainsariei eragingo dien KPI garrantzitsuaz gain, ia hirukoiztu egin da, aurreko ekitaldiekin alderatuta, epaitegi eta auzitegiek Elkargoari egindako eskaera-kopurua, Kostuen Tasazioei buruzko txostenei dagokienez.

Elkargoko kontu-ikuskaritzak edo lan-aholkularitzak eragindako gastuak ere sartzen dira, eta Elkargoaren kudeaketa-sistema informatikoa, estraneta eta web-orria eguneratzeko eta mantentzeko zenbateko garrantzitsua dago. Elkargokideek erabiltzeko webgune berri bat eta app bat egitea aurreikusi da, Elkargoak Internet bidez eskaintzen dituen zerbitzu guztietara sartzeko eta zerbitzu horiek zabaltzeko. Horiek guztiak gero eta garrantzitsuagoak dira gurea bezalako elkargo-erakunde batean.

#### **- Publizitatea:**

Zerbitzu Orokorren barruan *60.000 €-ko* partida sartu da, aurreko ekitaldikoaren antzekoa, Elkargoak Bizkaiko abokatutza ezagutarazteko urtero egiten duen publizitatearekin jarraitzeko.

Publizitate-kanpaina horiekin abokatutzak gizartean duen irudia hobetu nahi dugu, batez ere, gure zerbitzu profesionalak erabiltzera ohituta ez dauden bezero berrien sektoreei begira (enpresaburu txikiak, autonomoak, merkatariak, langileak, etab.). Horretarako, komunikabideak eta egokitzen diren gainerako tresnak erabiliko dira eta, beraz, aurrekontuan xede horretarako kopuru handi bat sartu behar da.

Diru hori, jakina, ez da nahikoa gure publizitatea etengabe eta hedabide guztietan egiteko. Baina kopuru horri esker aurreko urteetan guretzat onuragarri izan diren hedabideetan agertuko gara eta, publizitate-kanpaina irudimentsuen bidez, partikularrek prebentziozko abokatutza erabil dezaten bultzatu nahi da.

Aurten, aurreko urteetan bezala, hedabide batek luzatutako proposamenari ekingo diogu: publizitatea egingo da Bizkaian salmenta handia duen hedabide batean; proposamena egokia izan da eta diru aldetik eutsi ahal izango diogu.

#### **- Elkartasun Funtsa:**

Aurreko urteetako Gizarte Ekintzari *Elkartasun Funts* esaten zaio orain. 2022ko ekitaldiko aurrekontuan *3.000 €-ko* kopurua aurreikusi dugu horretarako; beraz, aurreko ekitaldiko kopuruaren antzekoa.

Aurreko ekitaldietan jasotako kopuruei esker, funts bat sortu ahal izan dugu, eta, une honetan, horretara jo ahal izango dugu, datozen urteetarako har ditzakegun prestazioak arriskuan jarri gabe; horrenbestez, Elkargoak laguntza hori mantentzeko

duen konpromisoa betetzeko aukera dugu, premia-egoeran dauden gure lankideei edo haien senideei laguntzeko.

Gobernu Batzordeak 2007. urtean funtsa banatzeko eta funtzionatzeko modu berria ezarri zuen. Arautegia kontsultatzeko, gure web-orrialdera jo dezakezuela gogorarazten dizuegu: [www.icasv-bilbao.com](http://www.icasv-bilbao.com).

### **- Zergak:**

Partida honetan gertatzen den murrizketa handia, eta horregatik bereziki aipatzen dugu, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak Bilboko Urribarte kaleko 3. zenbakiko gure elkargoaren eraikina, monumentu izendapenez, Babes Bereziko Kultura Ondasun izendatu izanaren ondorioa da, martxoaren 23ko 117/2021 Dekretuan jaso zenaren arabera.

Deklarazio horrek eraikina kontserbatzeko betebeharrak batzuk dakartza berekin —dena den, eraikina kontserbatzeko edo instalazio berriak abian jartzeko edozein obra egiteko garaian betebeharrak horiek kontuan hartzen ziren—, baina Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ) ez ordaintzeko salbuespen iraunkorra dakar.

Hori dela eta, aurrekontuan jasotako partida 1.050 €-ra jaisten da, aurreko ekitaldietan aurreikusitako 17.800 €-ekin alderatuta.

### **- Langileak:**

Beti bezala, langilei lotutako partida gure aurrekontuaren partidarik garrantzitsuena da, hain zuzen, 683.920 €, Zerbitzu Orokorren barruan, hurrengo hauek ere barruan hartuta: Elkargoaren gastu-gune eta jarduera desberdinetara esleitzea ezinezkoak diren soldadak eta alokairuak; horrez gain, Gizarte Segurantzarekin dauden kasuan kasuko betebeharrak eta beste zama batzuk sartuta daude. Kopuru hori ekitaldirako aurreikusitako gastuen aurrekontu osoaren % 40,78 da; aurreko urteetakoaren antzekoa, beraz.

Elkargoko gastuen guztien artean, langileei dagokiena 1.455.120 €-koa da, hau da, aurrekontuan sartutako gastu guztien % 39,64. Kopuru horretan, Zerbitzu Orokorren gastuez gain, langile-gastuak egozten zaizkien zentro hauen gastuak sartzen dira: Praktika Juridikoko Eskola, Ofiziozko Txanda eta Orientazio Juridikoko Zerbitzua, bai eta Arbitraje Gortea ere.

### **- Amortizazioak:**

Aurreko urteetan higiezinetan, altzarietan, ekipoetan eta programazio informatikoan egindako inbertsioak kontabilitate arloan babesteko, gastu arruntan artean, ezarritako kontabilitate-irizpideen arabera dagokion kopurua sartzen da.

Elkargoak sistematikoki amortizatzen du bere erabilerarako ibilgetu materiala, metodo linealari jarraituz, eta aktiboen kostua kalkulaturako bizitza baliagarriko urteen artean banatzen du.

Elkargoak ezarrita duen kostuen analisiaren ondorioetarako, egozpen horiek elkargoaren instalazioei ematen zaien erabileraren proportzioan egiten dira, eta Zerbitzu Orokorren, Praktika Juridikoko Eskolaren eta Ofiziozko Txandaren artean banatzen dira. Aurten kalkulatu da kontzeptu horiengatik kostuko zentro guztietan egotzitako zenbatekoak 181.970 € izango direla. Kopuru hori aurreko ekitaldikoaren antzekoa da (183.570 € 2021ean).

### **SARRERAK:**

Sarrera gehienak Zerbitzu orokorretan sartzen dira, Elkargoak ezarritako sistema analitikoan xede zehatz batera ez badoaz.

#### **- Aldizkako kuotak:**

Elkargoaren sarreren barruan, partidarik garrantzitsuena, beti bezala, kideok ordaintzen ditugun aldizkako kuotak dira. Txosten honen hasieran esan dugun moduan, kuotek **berdin jarraituko** dute. Horrenbestez, kuotek **–hamalagarren** urtez– handitu gabe edo txikituta jarraituko dute.

Aurrekontuetan kontzeptu horretarako ezarritako kopuruak **–1.512.960 €–** behera egin du (14.440 € gutxiago, aurreko ekitaldiarekin alderatuta), azken urteetan elkargokide kopuruak behera egin duela pixkanaka eta elkargoko kuotak mantendu direla.

Kuotak duela hogeita bat urte Batzar Nagusiak onetsitako **mailakatzearen** arabera antolatuta daude, hau da, 2 edo 5 urte baino aldi laburragoan sartu diren bertako jarduneko elkargokide egoiliarrei, hurrenez hurren, **% 50 eta % 25eko murrizketak** eginda.

**2022. urtean, Elkargoaren urteko kuotak** hauek izango dira:

#### **Jarduneko kide egoiliarrak**

- 5 urte baino gehiago elkargoan: 384,00 euro
- 2 urtetik 5 urtera elkargoan: 288,00 euro
- 2 urte baino gutxiago elkargoan: 192,00 euro
- 50 urte baino gehiago elkargoan: Kuotarik gabe

#### **Jarduneko kide ez egoiliarrak**

- Urteko kuota: 192,00 euro
- 50 urte baino gehiago elkargoan: Kuotarik gabe

#### **Jardunean ez daudenak**





- Urteko kuota: 192,00 euro
- 40 urte baino gehiago elkargoan: Kuotarik gabe

Kuotak **hiru hilerik behin kobratzen** jarraituko dugu, **aldiaren lehen egunean**. Zenbatekoa ezartzeko, kontuan hartuko dira elkargokidearen une horretako egoera, egoitza eta elkargoan daraman denbora.

#### **- Elkargoan sartzeko kuotak:**

Sartze kuotengatik 49.900 €-ko diru-sarrera aurreikusi da, aurreko ekitaldiaren antzeko kopurua, urtean zehar 95 elkargokide berri sartuko direla aurreikusiz; horietako bakoitzak 500 € ordainduko ditu; zenbateko hori, hain zuzen, Elkargoko administrazio-izapideak eragiten dituen gastuak ordaintzeko da.

Kopuru horretan sartzen da, halaber, 12 elkargokide berriro sartzea, eta 200 €-ko kuota ezartzen zaie Elkargoko kide berriro bihurtzeagatik. Izan ere, lehen aldiz egiten dituzten alten kasuan baino administrazio-gastu txikiagoak sortzen dira, bai eta Arabako edo Gipuzkoako elkargoetako kide izanik gurean alta ematen dutenean, Abokatutzaren Euskal Kontseiluaren erabakiaren arabera.

Ekitaldi honetan ez dira partida honetan sartzen, ohikoa zen bezala, baina kopuru txiki batean, norberaren gaietarako gaikuntzak izapidetzetik eratorritako diru-sarrerak, egoera hori ez baita Abokatutzaren Estatutu Orokor berrian jaso.

Elkargoko kuotak eta elkargoan sartzeko kuotak guztira 1.562.660 € dira, hau da, Elkargoaren diru-sarrera guztien % 45,56.

## **Praktika Juridikoko Eskola:**

### **GASTUAK:**

Aspalditik, "Pedro Ibarreche" Praktika Juridikoko Eskola gastu gune nabarmena da; hori dela eta, arreta berezia eskainiko diogu. Dakizuenez, Praktika Juridikoko Eskolaren jarduera ez dagokie bakarrik Eskolako ikasleei, gaur egun **Etengabeko Prestakuntza** deitzen dugun horretara hedatzen da eta; horren harira, elkargokide guztiei begira jardunaldiak eta birziklatze-ikastaroak antolatzen dira. Esan behar da lan hori elkargokideek asko estimatzen dutela: urte osoan pertsona askok ematen dute izena antolatzen diren mota desberdinetako jardueretan.

"Pedro Ibarreche" Praktika Juridikoko Eskolak garrantzi ekonomiko handia hartu du duela urte batzuk, Elkargoaren gastu eta diru-sarrera guztiei dagokienez, eta adierazi behar dugu bere jarduera ez dela praktika juridikoko ikasleetara soilik mugatzen, baizik eta **Etengabeko Prestakuntza** deitzen diogunera ere hedatzen dela,



gai berriei buruzko jardunaldiak eta ikastaroak antolatzena edo daudenak birziklatzena ere dedikatzen delako, bai eta elkargoko batzordeei eskaintzen dien laguntzera ere; esan behar da lan hori elkargokideek asko estimatzen dutela: urte osoan pertsona askok ematen dute izena antolatzen diren mota desberdinetako jardueretan.

Ekitaldi honetarako gastu horren aurreikuspena aurreko ekitaldikoa baino pixka bat handiagoa izan da, 828.865 € (aurreko ekitaldian 770.040 €-koa izan zen).

Abokatutzan Sartzeko Legea indarrean sartzeak eta elkargokideek sartzeko masterra egiteko duten betebeharrak Deustuko Unibertsitatearekin Abokatutzan sartzeko ASUM Masterra sortzeko lortu zen akordioa sendotzea ekarri zuen, eta horrek gure Eskolaren aurrekontu handia egonkortzen lagundu du.

Ekitaldi honetan, gure Eskolaren jarduera sustatzen jarraituko dugu; alde batetik, Deustuko Unibertsitatearekin lankidetzan estuan jarraituko dugu, eta, bestetik, Euskal Herriko Unibertsitatearekin, zeinarekin batez ere Sarbide Masterreko ikasleen praktikak antolatzen laguntzen dugun; eta, azkenik, gure elkargokideei zuzendutako ikastaroak eta tailerrak etengabe antolatzen.

Aurten, espezialistentzako hiru ikastaro berri egiteak ekarriko dituen gastuak eta diru-sarrerak jasotzen dira. Ikastaro horiek berrikuntza izango dira gure Eskolarentzat: Kontratazio Publikoa, Familia eta Oinordetza eta Lan Zuzenbidea eta Auditoria. Sarreran adierazi dugun bezala, guztiak iaz egitekoak ziren, baina ezin izan ziren gauzatu pandemia zela eta.

### **SARRERAK:**

Eskolaren jardueratik lortuko ditugun diru-sarrerak *1.013.500 €-koak* izango dira ekitaldi honetan, bai Sarbide Masterrean matrikulatutako ikasleengatik, bai urtean zehar antolatzen diren ikastaro eta jardunaldietara bertaratutako ikasleengatik, batez ere abokatuengatik. Aurrekontuaren dokumentuan egiazta daitekeenez, zenbateko hori 2021eko ekitaldian aurrekontuan sartutako 962.000 euroak baino pixka bat handiagoa da, batez ere Abokatutzan Sartzeko Masterreko ikasleen kopurua handitu egin delako; beraz, diru-kopuru handienetako bat izaten jarraitzen du, eta, beraz, gure eskola, aurretik esan bezala, oso jarduera garrantzitsua da gure elkargoaren ibilbidean.

### **Ofizioko Txanda eta Laguntza (Doako laguntza juridikoa):**

#### **GASTUAK:**

Ezin dugu aipatu gabe utzi, urtero bezala, ofizioko txanda eta laguntza, bertan abokatu elkargoen eskuetan dagoen lan garrantzitsu bat islatzen da eta. Gainera, Elkargoko langileek ordu asko ematen dituzte arlo horretan eta Elkargoko baliabide materialen zati handi bat gai horri dagokio.

Aurreko aurrekontuetan egin zen moduan, kopuru garrantzitsua eskaini zaie, 690.735 €, Elkargoak zerbitzu horien (Doako Laguntza Juridikoa eta Ofizioko Txanda) azpiegiturari eusteko dituen gastuei aurre egiteko.

Partida horretan sartzen dira doako laguntza juridikoaren sistemak Elkargoari eragiten dizkion gastuak. Sistema horrek barnean hartzen ditu ofiziozko txanda guztien funtzionamendua, atxilotuari laguntzeko modalitateena eta orientazio juridikoko zerbitzuaren funtzionamendutik eratorritakoak. Era berean, barnean hartzen dira Genero Indarkeriaren eta Sexu Erasoen Biktimei Laguntzeko Zerbitzuaren azpiegitura-gastuak, gastu gehigarri handia dakarrena eta Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzarekin finantzatzen dena, eta, azkenik, Atzerritarren Zerbitzu Berezia (SAJE) eragindako administrazio-gastuak, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza zehatz baten bidez ordaindutakoa.

### **SARRERAK:**

Ikus daitekeenez, ezin izan da aurrekontu-sail honen zero saldoa aurrekontuan sartu, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailak emandako Doako Laguntza Juridikoari buruzko 153/2018 Dekretua indarrean sartu den arren.

Dekretu horretan, azpiegitura-gastuak handitzea aurreikusten da, Doako Laguntza Juridikoko zerbitzuek abokatuei aurreko ekitaldian ordaindutakoaren aldean ehuneko mailakatu batzuetan oinarrituta. Horrek elkargook kontzeptu horrengatik historikoki izan dugun defizita ezabatzea ekarriko luke, eta 2021eko ekitaldian hura nabarmen murriztea eragin zuen. Hala ere, 2020 eta 2021eko pandemiaren hilabeteetan nabarmen murriztu direnez txandako izendapenak eta elkargokideen jarduerak, elkargook 2022an jasoko dugun diru-laguntza ere murriztu egingo da, eta horrek defizitera bueltatzea eragingo du.

Kalkulatu da Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak gastua estaltzeko emandako diru-laguntzen ondoriozko diru-sarrera 652.110 eurokoa izango dela, eta aurrekontuan kontuan hartu eta sartu dugu.

### **Kultura Batzordea:**

Azpimarratu nahi genuke batzorde horren jarduera sendotu egin dela, aurrekontu-zuzkidura nahiko txikia izanik (20.790 € ekitaldirako), Elkargoa dinamizatzen jarraitzen baitu, elkargokideei ez ezik, publiko orokorrari ere zuzendutako kultura-jarduerekin, Bizkaiko gizarteari gure instalazioak eta gure kolektiboa irekiz. Jarduera asko eta askotarikoak dira urtean zehar, kontzertuak, literatura-emanaldiak, erakusketak eta abar, kalitate handikoak eta bertaratutakoek asko baloratzen dituztenak. Era berean, Batzordeak parte hartzen du gure aldizkariaren zenbaki guztietan argitaratzen den atal kulturalaren bidez. Pandemia izan arren, espero dezagun urte honetarako aurreikusitako jarduera guztiak antolatu ahal izatea.



## **Informazio Agerkaria:**

Informazio Agerkaria izena hartzen du Elkargoko aldizkariak aspalditik. Urtean 10 ale ateratzen dira. Elkargoko kideen bulegoetara eta eremu juridikoarekin lotutako hainbat erakundetara heltzen da. Ekitaldi honetan, aurrekontua 2021ekoaren antzekoa da (baina aurreko ekitaldietakoa baino txikiagoa): *111.000 €*; izan ere, elkargokideei aukera emango zaie beren bulegoetan aleak jasotzen jarraitu nahi duten edo bide telematikoen bidez soilik jaso nahi dituzten aukeratzeko; horrela, une honetan argitaratzen diren 5.200 aleek dakartzaten gastuak (paperezko aleak inprimatzeko, manipulatzeko eta bidaltzeko gastuak, hain zuzen) murriztuko dira.

Nolanahi ere, eta gure artean dagoen pandemia dela eta, ohi baino kopuru txikiagoa aurreikusi da aurrekontuan, urtearen zati handi bat formatu telematikoan soilik editatzen jarraituko dela aurreikusi baita.

Duela urte batzuetatik hona iragarkien bidez finantzaketa lortzea zaila den arren, kontzeptu horrengatik *60.000 euroko* diru-sarrerak aurreikusi dira, orain arte lortu ohi den kopurua baita.

## **Argitalpenak:**

Gure kolektiboaren artean gehienentzat interesgarriak diren gaietarako lan juridikoak edo kodeak argitaratu eta, ondorioz, doan banatzeak duen onarpen handia egiaztatzen jarraitzen dugu, Elkargoak oso prezio txikian lortutakoak. Hori dela eta, Gobernu Batzordeak egokitzat jo du datorren urterako partida hori nabarmenki hornitzen jarraitzea eta *41.000 €* bideratzea lan berriak erosteko edo editatzeko.

Halaber, Vlex datu basea —jurisprudentzia, legeria, doktrina eta formularioak batzen dituen— kontratatzea aurreikusita dago; doan eskaintzen zaie elkargokideei elkargoko estranetaren bidez eta elkargokideen artean harrera bikaina du.

## **Ekimen korporatiboak:**

2020an eta 2021ean etendako jardueretan normaltasunera itzultzea espero denez, Elkargoaren inguruko ekimenak izeneko partida honetan, *105.750 €-ko* aurrekontua sartu da; bertan Elkargoak antolatutako jarduerak burutzea sartzeko da, batez ere urteko bazkaria, eskelak eta hildako lankideen omenezko urteko meza. Bazkari horren bidez, Elkargoan 40 urtetik gora daramaten legelariak omentzen dira.



Askotariko zerbitzuen barruan sartzen dira Elkargotik abokatutzarekin lotutako erakundeei edo Gobernu Batzordearen ustez gure partaidetza merezi duten erakundeei egindako ekarpena.

Partida honetako sarrera da urteko bazkarira doazenek ordainduko duten diru-kopurua, gutxi gorabehera 25.000 €.

### **Arbitraje Gortea:**

Duela urte batzuk ezarri zen zerbitzu orokorretatik independentea den jarduera moduan. Modu horretan, horri egozten zaizkio jardueratik zuzenean eratorritako gastuak eta sarrerak.

Ekitaldi honetan, jarduera horretarako 50.995 €-ko aurrekontua ezarri da, eta 45.400 € Elkargorako sarrera moduan, auzilariek Elkargoari kopuru hori ordainduko diote eta.

### **Nazioarteko lankidetzak eta Garapenerako lankidetzak:**

Partida honetan sartzen da Elkargoak nazioarteko lankidetzako eta garapenerako lankidetzako proiektuak finantzatzera bideratutako zenbatekoa. Horretarako, gure Elkargoko Nazioarteko Lankidetzako Batzordearen lankidetzak dugu, eta gure Batzar Nagusiak ezarritako eta bere gain hartutako % 1aren arabera, 34.000 euroko zenbatekoarekin aurtun.

Partida hori aurreko ekitaldikoa baino pixka bat handiagoa da, aurrekontua oso gutxi handitu baita.

### **Ikerlan taldeak:**

Aurrekontuan batzordeen eta azterlan taldeen ohiko partidak bere horretan mantendu egin dira. Talde horiek guztiek Elkargoari bizitasuna ematen diote eta elkargokideei aukera ematen die hainbat eta hainbat ekimenetan parte hartzeko. Taldeak eta horien gaiak honako hauek dira: Familia zuzenbidea, Euskal zuzenbidea zibila, Teknologia berriak, Bitartekaritza, Ingurumena, Lan zuzenbidea, Nagusien zuzenbidea, Jabetza Intelektualari buruzko zuzenbidea, Lankidetzak zuzenbidea eta animalien zuzenbideari buruzko taldea, Espetxe zuzenbidea eta Itsas eta Garraio Zuzenbidea.



Talde bakoitzak antzeko kopurua du esleituta, urtean zehar garatzen dituzten beharren eta jardueraren arabera.

Aurrekontuaren zenbateko osoak, lehen adierazitako arrazoiengatik, **% 8,72ko igoera** izan du **gastuetan** eta **1,59koa sarreretan**, aurreko urtekoaren aldean.

Memoriaren hasieran adierazi den bezala, lehen aldia da defizita duen aurrekontu bat aurkezten dela, 240.905 eurokoa, Elkargoaren Gizarte Funtsaren eta aurreko ekitaldian egindako superabiten aurka joango dena, eta, batez ere, 2021eko ekitaldian gertatuko denaren aurka, une honetan amaitzen ari dena.

## **Hiruhileko ordainagiriak**

Memoria honekin batera, Elkargoak urtean zehar kobratuko dituen kuota guztiak azaltzen dituen taula bat gehitu da, Elkargoko antzintasunaren arabera dauden aukera guztiak zehaztuz, jardunekoak eta ez-jardunekoak bereiziz, eta egoiliarrek eta ez direnak bereiziz.

2021ean egiten hasi ginen moduan, **urteko lau hiruhilekoetako ordainagiriaren artean kobratzen diren kontzeptu guztiak modu ekitatiboan banatuko** dira; hala, kobratu beharreko kopurua antzekoa izango da ordainketa guztietan (urtarrilean, apirilean, uztailean eta irailean).

Gogoratu nahi dizuegu Elkargoaren hiru hilean behingo ordainagiritan, kuotez gain, beste kontzeptu batzuk sartzen direla. Kontzeptu horiek ez dira elkargoko aurrekontuaren atalak baina kudeatu behar ditugu; zehatz esanda, hauek dira:

- **Abokatutzaren Kontseilu Nagusiaren kuotak** (2021eko zenbatekoak mantentzen dira jarduneko eta ez-jarduneko elkargokide egoiliarrentzat, bai eta inolako elkargo-egoitzarik ez dutenentzat ere):

Jarduneko kide egoiliarrek, jardunean ez dauden egoiliarrek eta egoitza-elkargorik gabeko kideak: **39,13 €**.

Abokatutzaren Kontseilu Nagusiak **salbuespen** sistema berezia du:

- Jarduneko kide egoiliarrek, 72 urte baino gehiago dutenak eta 50 urte baino gehiago kide egin zirenetik.

- Jardunean ez dauden egoiliarrek, 72 urte baino gehiago dutenak eta 45 urte baino gehiago kide egin zirenetik.



- **Abokatutzaren Euskal Kontseiluaren kuotak:** Euskal Kontseiluaren erabakiz, 2021arekiko kuota-igoera txiki bat egitea erabaki da:

- Jarduneko kide egoiliarrak: 28,00 €
- Jardunean ez dauden egoiliarrak: 15,30 €

Euskal Kontseiluaren kuotetan, beteranoek gure elkargoan dituzten salbuespen berberak daude.

- **Erantzukizun Zibileko eta Istripuetako Asegurua:** Elkargoak jarduneko kide egoiliarrentzat kontratatzen du; iazko kopurua mantentzen da eta urteko zenbatekoa hauxe da: 267,28 €.

Esan bezala, zenbateko hori urteko lau hiruhilekoen artean banatzen da.

Komeni da gogoratzea erantzukizun zibileko aseguruak 700.000 €-ko estaldura duela ezbehar bakoitzeko, eta 600 €-ko frankizia ezbehar bakoitzeko. Estaldura hori norberak zabaltzeko aukera dago; ondorioz, adierazitako frankizia desagertu egiten da. Izapide horretarako inprimakiak Elkargoaren webgunearen bidez eskura daitezke, inprimakien atalean (<http://www.icasv-bilbao.com/colegiacion.aspx>).

Zenbateko horretan, istripuak eragindako heriotza edo ezintasun iraunkorreko kasuetarako aseguru bat sartzen da, 24.000 €-koa, eta 15.000 €-koa bihotzekoak eragindako heriotzaren kasuan.

Kontratatzeko aukera dago, halaber, printzipalaren zabaltze gisa, konkurtsoko administratzailearen eta sozietate profesionalen arriskuak.

Kontratatzeko aukera dago, halaber, printzipalaren zabaltze gisa, konkurtsoko administratzailearen eta sozietate profesionalen arriskuak.

- **LEI aseguru** (Lanbide Ezintasun Iraunkorraren ondoriozko prestazioa) borondatezkoa da jardunean dauden egoiliarrentzat; 2022an 223,48 € izango dira; urteko lau ordainagirietan agertuko da, esan bezala.

Aseguru hori dela eta, 30 € eguneko jasotzen dira, 18 hilabetez, istripuagatik edo gaixotasunagatik bajan egonez gero; 7 eguneko frankizia du. Halaber, erditze edo adopzio bakoitzeko 950 €-ko zenbatekoa ezarri da amentzat, bai eta aitasunagatik ere, ama polizan sartuta ez badago.

70 urtetik gorakoekin kapitala eguneko 26,50 €-koa izango da, 20 eguneko frankiziarekin eta gehienez 90 egunez.





Ilustre Colegio de la Abogacia de Bizkaia  
Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsua

Espero dugu **abenduaren 22an, 13:00etan**, Elkargoaren egoitzako ekitaldi-aretoan izango zaretela aurrekontu hau onartzeko deitzen den **Batzar Orokorrean**.

Bilbon, 2020ko abenduaren 9an

**GOBERNU BATZARRA**